



2022KO URRIAREN 10EKO JARRAIBIDEA, FUNTS PUBLIKOekin MANTENDUTAKO IKASTETXEEI ZUZENDUA, CURRÍCULUMAREN NORBANAKO EGOKITZAPENAK (CNE) EGITEKO ARAUDIA APLIKATZEARI ETA EGOKITZAPEN HORIEK EGITEKO ETA KUDEATZEKO EPEEI BURUZKOA.

1. Hezkuntza Sailburuordearen ikasturte hasierako ebazpenean ezarritakoari jarraituz, CNEak egiteko hurrengoa hartuko dugu aintzat:

- **Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailetan eta DBHko 2. eta 4. mailetan 236/2015 Dekretuak dioenaren arabera egingo dira.**
- **Lehen Hezkuntzako 1., 3. eta 5. mailetan eta DBHko 1. eta 3. mailetan Hezigunean eskegitako Curriculum Dekretu berriei erreparatuz egingo dira.**

CNEa egiterakoan, egoera desberdinak aurki ditzakegu:

- a. Ikaslea maila batean eskolatuta egotea (esaterako 6. mailan), eta CNEa egindako arlo edo irakasgaietan erreferentziako curriculum maila bakar batekoa izatea. Kasu hauetan aurrez esandakoa kontuan hartuko da. Alegia, LHko 1., 3. edo 5. mailetan eta DBHko 1. eta 3. mailetan curriculum berria aintzat hartuko da, eta gainerako mailetan 236/2015 Dekretua.

Adibidea:

- CNE: - Matematika erreferentzia 2. maila
- Euskara erreferentzia 2. maila
- Gaztelania erreferentzia 2. maila

- b. Ikaslea maila batean eskolatuta egotea (esaterako 6. mailan), eta arlo edota CNEa egindako arlo edo irakasgaietan erreferentziako curriculum beste maila batekoa izatea. Kasu hauetan erabaki da, horren arabera lehen adierazitakoa aplikatzea, alegia: 1., 3., eta 5. mailetan eta DBHko 1. eta 3. mailetan curriculum berria kontuan hartzea, eta gainerakoetan 236/2015 Dekretua.

Adibidea:

- CNE: - Matematika erreferentzia 2. maila

- Euskara erreferentzia 3. maila
- Gaztelania erreferentzia 3. maila

c. Ikaslea maila batean eskolatuta egotea (esaterako 6. mailan), eta arlo edota CNEa egindako arlo edo irakasgaietan erreferentziako curriculuma bi mailetakoa izatea. Kasu hauetan **curriculum berria soilik** aplikatuko da.

Adibidea:

- CNE:
- Matematika erreferentzia 2. eta 3 mailak
 - Euskara erreferentzia 3. eta 4. mailak
 - Gaztelania erreferentzia: 3. eta 4. mailak

2.Aurrez adierazitakoaren ondorioz, CNEak egiteko eta kudeatzeko datak atzeratzeratuko dira, horrela geratuko direlarik:

Ikasleentzako curriculum-egokitzapenak aurkezteko epeak:

- Ikastetxeko zuzendaritzak **azaroaren 7a** baino lehen tramitatuko du proposamena.
- Berritzeguneko Hezkuntza Premia Bereziak aholkularitza **azaroaren 30a** baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak **abenduaren 20a** baino lehen bidaliko du oniritzia.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak **urtarrilaren 9a** baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei neurria onartuta dagoen ala ez, ikastetxeak, urtarrilaren 16a baino lehen, idatziz jakinaraz diezaien ikaslearen legezko arduradunei, ebazpenaren kopia erantsita.

3.CNEak egiteko jarraibide honi erantsitako txantiloia erabiliko da curriculum berria aplikatu beharreko kasuetan.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko urriaren 10ean



Izpta. Lucia Torrealday
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaria